

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

176/2026 Foru Agindua, uztailaren 1ekoa. Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen arte eta kultura-sorkuntza babestu eta sustatzen duten kultura-gune independenteentzako dirulaguntzen deialdia onartzea, 2026. urtean

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 22ko 9/2022 Foru Dekretuak, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenak, Kultura Zuzendaritzaren funtzioen artean ezartzen ditu kultura-beharrak aztertzea eta neurri egokiak proposatzea arteak eta kultura-praktikak bultzatzeko, sendotzeko eta garatzeko, bai eta kultura-ekintza eta -hedapena sustatzeko deialdiak eta laguntzak programatzea eta ebaluatzea ere.

Eskumen horiek baliatuz, Kultura Zuzendaritzak Arabako kultura-sektorea sustatzeko, bultzatzeko eta laguntzeko esparru egokia garatu du, dirulaguntzen urteroko deialdiak onartuz.

Aurrekoarekin bat etorriz, adierazpen artistikoa sortzeko, ikertzeko, bitartekotza egiteko eta sustatzeko proiektuak egiteko azpiegiturak eta egiturak diruz lagundu nahi ditu. Hori guztia sortzaileen eta gizartearen arteko topaketaren eta elkarriketaren alde lan egiten duten guneen sarea sendotzen laguntzeko, lurralde-orekaren ikuspegiarekin.

Horretarako, nahitaezkoa da kultura-programek bete beharreko berariazko arau-esparrua ezartzea, Sailak dagozkion dirulaguntzak erabaki ditzan.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horiek horrela, nire eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen arte- eta kultura-sorkuntza babesten eta sustatzen duten kultura-espazio independenteetarako 2026ko dirulaguntzen deialdia onartzea. Deialdi hori foru-agindu honen I. eranskinean dago jasota.

Bigarrena. Deialdian eskatzen diren dokumentuen ereduak onartzea, foru agindu honen II. eranskinean (eskabide-inprimakia), III. eranskinean (jarduera-memoria) eta IV. eranskinean (memoria ekonomikoa) jasota daudenak.

Hirugarrena. Deialdi hori arautzeko, kontuan hartu dira Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua, 2019ko azaroaren 20ko 134 zenbakiko ALHAOn argitaratua, martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuaren bidez aldatua), Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 9ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitakoa eta foru-agindu honen I. eranskinean xedatutakoa.

Laugarrena. 100.000,00 euro esleitzea, deialdiaren gehieneko zenbatekoa, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko aurrekontuko 70105. G/334700/47900702 "Kultura Gune Independenteentzako Dirulaguntzak" partidaren kargura.

Bosgarrena. Organo eskudunak, Kultura Zuzendaritzaren proposamena ikusita, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute erakunde interesdunek.

Seigarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Zazpigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatu titulari, hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan arabera; bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenan, bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 1a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Kultura jarduneko zuzendaria. P. A
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

I. ERANSKINA

2026EKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ETA TREBIÑUKO ENKLABEAN ARTE ETA KULTURA SORKUNTZA BABESTEN ETA SUSTATZEN DUTEN KULTURAGUNE INDEPENDENTEENTZAKO

1. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea hau da: Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabean arte eta kultura sorkuntza babesten eta sustatzen duten titulartasun pribatuko kulturagune independenteak kudeatzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko pribatuei dirulaguntzak ematea.

Deialdi honen helburua da adierazpen artistikoa sortzeko, ikertzeko, bitartekotza egiteko eta sustatzeko proiektuak egiteko azpiegiturak eta egiturak babestea. Hori guztia sortzaileen eta gizartearen arteko topaketaren eta elkarriketaren alde lan egiten duten espazioen sarea sendotzen laguntzeko, lurralde orekaren ikuspegiarekin.

Deialdia bat dator Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenbakia) xedatutakoarekin. Dekretu hori Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen (2021eko martxoaren 10eko ALHAO, 28. zenbakia).

2. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira.

Dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskaerak ezarritako balioespen irizpideen arabera alderatuko dira, eskaeren arteko hurrenkera ezartzeko. Balioespen handiena lortu dutenei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

3. artikulua. Dirulaguntzen aurrekontu egozpena, zenbatekoa eta muga

Deialdiaren gehieneko zenbatekoa 100.000,00 euro da, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako gastu aurrekontuko 70105. G/334700/47900702 "Kulturagune Independenteei Dirulaguntzak" partidaren kontura.

Deialdi honetan, diruz lagundu daitekeen gastu osoa eragiketa hau egitetik lortzen den emaitza izango da: justifikatutako gastu osoa ken deialdi honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak. Gastu hori 2026ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 30era bitartean gauzatu beharko da.

Emandako dirulaguntza ez da inola ere izango eskatutako zenbatekoa baino handiagoa, ezta diruz lagundu daitekeen gastu osoaren ehuneko 25 baino handiagoa ere.

Nolanahi ere, diruz lagundu daitekeen guztizko gastua 20.000,00 eurokoa izango da gutxienez.

Hautatutako entitate bakoitzari emandako gehieneko zenbatekoa 10.000,00 euro izango da.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, kasuan kasuko deialdietan ezarritakoaren arabera balioetsi ondoren, 1.000,00 euroraino iristen ez diren eskaerek.

4. artikulua. Kulturaguneen betekizunak

1. Sorkuntzarako kulturagune independentetzat hartzen dira titulartasun pribatuko espazioak, baldin eta haien xedea sorkuntza eta sormena sustatzea bada eta nagusiki sormen proiektuak sustatzea, kulturara eta arte adierazpenera bideratzen badira. Hori guztia beste gune batzuekiko sare lan testuinguru batean kokatu beharko da, sortzaileak ingurunearekin duen harremanean eta hazkunde artistikoan lagunduko duena.

2. Era berean, kulturaren kudeaketan, bitartekaritzan eta aholkularitzan dihardutenak ere sartzen dira, bai eta sorkuntza lantegitzat jotzen diren guneak ere.

3. Guneek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

a. Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabeen kokatutako higiezinak izatea.

b. Sorkuntza, bitartekaritza, ikerketa eta esperimentazio kultural eta artistikoko proiektuak egiteko gaitasuna eta egokitasuna izatea; beraz, proiektu horiek gauzatzeko behar diren espazioak eta baliabide teknikoak izan beharko dituzte.

4. Oinarri hauen xedetik kanpo geratzen dira: plataforma digitalak, nahiz eta espazio fisikoak izan; eta jarduera nagusitzat prestakuntza, turismoa, merkataritza edo gizarteratzea dutenak. Era berean, kanpoan geratzen dira erakusketa gune hutsak.

5. artikulua. Proiektuen betekizunak

Proiektuek kultura sektore edo arte diziplina hauetako batean edo batzuetan sartuta egon beharko dute: ikusizko arteak, zinema eta ikus entzunezkoak, arte eszenikoak, literatura, musika eta bertsolaritza.

Babestutako proiektuak 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abuztuaren 30era bitartean gartuko dira.

6. artikulua. Entitate onuradunak

1. Laguntza hauen entitate onuradunek Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabeen izan beharko dute egoitza soziala eta zerga egoitza.

2. Dirulaguntza hauek eskatu ahal izango dituzte nortasun juridiko propioa duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek, baldin eta, jarduteko gaitasun osoa izanik eta edozein dela ere haien forma juridikoa, honako baldintza hauek betetzen badituzte deialdi hau argitaratzen den unean eta proiektua amaitu arte:

a. Deialdi honen 4. artikuluan ezarritakoa betetzen duen sorkuntzako kulturagune baten kudeaketaren edo ustiapenaren titularrak izatea, eta honako baldintza hauetakoren bat betetzen dutela dokumentu bidez egiaztatzea: higiezinaren jabetza titulua izatea, higiezinaren errentari izatea edo higiezinaren kudeaketa edo ustiapena haren alde lagata edukitzea, edozein tituluren bidez. Lagapen horrek proiektua osorik gauzatzearekin bateragarria den iraupena eduki beharko du.

b. Funtsean, kulturagunearen erabilera kultura sorkuntzara, bitartekaritzara, ikerketara eta esperimentaziora bideratzen dute.

3. Federazioetan, konfederazioetan edo antzekoetan elkartutako kultura elkarte eta entitateek ez dute nor bere aldetik edo beste entitate bateko kide gisa aurkezterik deialdi honetan. Egoera horrek automatikoki ekarriko luke egoera horrekin identifikatutako eskaera guztiak ez onartzea.

4. Berariaz baztertuta geratzen dira:

a. Elkarateak, taldeak eta antzekoak, beren helburuen artean nagusiki kultura izaerakoak ez badituzte, eta egiten dituzten jarduerak halakotzat jotzen ez badira.

b. Auzo elkarateak, gazte elkarateak, aisialdikoak eta denbora librekoak, bai eta hezkuntzarekin eta/edo prestakuntzarekin zerikusia duten guztiak ere, hala nola gurasoen elkarateak eta ikasleen eta ikasle ohien elkarateak.

c. Fundazioak.

d. Dirulaguntzaren xede bererako administrazio publikoekin kontratu bat esleituta daukaten entitateak.

e. Kultura eta Kirol Sailaren aurreko deialdietan emandako dirulaguntzetatik eratorritako betebeharrak guztiak bete ez dituztenak.

f. Arabako Foru Aldundiaren edozein sailek bultzatutako beste programa batzuetan jasota dauden edo beste edozein sailen eskumenekoak diren xedeak dituztenak.

g. Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontuan dirulaguntza izendunak dauzkatenak, horren helburua dirulaguntzaren xedearekin bat baldin badator, bai eta horiekin loturikoak ere.

h. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau hausteren bat dela-eta zehatu direnak, bai eta sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik administrazio zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokien zehapenean ezarritako aldian, hala xedatzen baitute, batetik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak eta, bestetik, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak.

5. Entitate onuradunek egunean izan beharko dituzte Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, bai dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik, bai dirulaguntza jaso aurretik. Kultura Ekintza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du entitate eskatzaileak egunean dituela betebeharrak horiek, bai eta aurrez aurreko aurkezpenean aukeratzen duten pertsona autonomoen NANari lotutako nortasun datuak ere. Entitate horrek egiaztapen horien aurka egiten badu, egitate horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako hamabigarrenaren bidez aldatua).

6. Pertsona juridikoak izanez gero, legez eraturik egon beharko dira

7. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira inolako zalantzarik gabe espazioa mantentzea helburu dutenak, behar-beharrezkoak direnak, merkatuko balioa gaintzen ez dutenak eta 2026ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 30era bitartean egiten direnak. Hala, diruz lagundu ahal izango dira:

a) Gunearen egituraren mantentze gastuak:

— Langile gastuak (kudeaketa gastuak, zuzendaritza gastuak, gastu teknikoak, administrazio gastuak, garbiketa gastuak, mantentze lanen gastuak edo antzekoak). Enpresen kotizazioak sartzen dira.

— Hornidurak: argiaren, uraren, telefonoaren, gasaren eta Interneten kontsumoak.

— Jarduera egiteko erabiltzen den gunearen alokairu gastuak.

- Lan jarduerarako ekipamendu, ibilgailu, makina eta altzarien errentamenduen kostua.
- Ohiko jarduerari loturiko aseguruaren kuotak.
- Kultura sektoreko elkarte profesionaletako afiliazio gastuak.
- Espazioaren ohiko jarduerarako beharrezkoak diren materialak eta ondasun suntsikorrak.
- Profesional independenteen zerbitzuak (kudeaketa, aholkularitza), auditoretzatik eratorritakoak izan ezik.

b) Sorkuntza gunearen jardura gastuak:

- Kanpoko profesionalen ordainsariak diruz lagundu ahal izango dira laguntza artistikorako, kultura bitartekaritzarako eta mentoretzarako direnean.
- Diruz lagundu ahal izango dira azken ekoizpenaren aurreko ikerketa, esperimentazio, prototipo eta garapen prozesuei lotutako gastuak.
- Komunikazio, diseinu grafiko, web, argazki, bideo, prentsa, publizitate digital eta jardueren zabalkunde gastuak.
- Ezagutza transmititzeko jardueren gastuak.

c) Zeharkako gastuak: zeharkako gastutzat joko da diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuaren ehuneko 10era arte, haiek justifikatu beharrik gabe, eta kostu horiek jardura programa benetan egiten den aldiari badagozkio. Hori guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 83.3 artikuluan araututakoaren arabera.

2. Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) diruz laguntzeko modukotzat jotzen da, baldin eta entitateak ezin badu berreskuratu.

3. Honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko:

a) Sorkuntza gunean garatutako proiektuen jardueratik eratorritako gastuak (egoitzak, ekoizpena, programazioa, ostatua, prestakuntzak, besteak beste).

b) Inbertsio gastuak.

8. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen izapide espezifikoaren bidez aurkeztu beharko dute eskaera pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jardura profesional batean dihardutenek, jardura horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzen dutenek (<https://egoitza.araba.eus/es/-/subvenciones-desarrollo-programas-de-creacion-y-difusion-cultural>). Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betetzeko.

2. Administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera behartuta ez dauden pertsonak aurrez aurre aurkez dezakete eskaera, leku hauetan:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Araba).

- Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko ogasun bulegoen erregistroan.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako erregistroetatik edozeinetan.

Atal honetan jasotako moduan aurkezten diren eskaerak deialdi honetako II. eranskineko eredura egokitu beharko dira.

3. Eskaera hainbat entitatek batera aurkezten badute, taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako exekuzio konpromisoak zehaztu beharko dira, bai eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta entitate guztiak hartuko dira onuraduntzat. Era berean, pertsona edo entitate bat izendatu beharko da elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar gisa, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiarekin, eta harekin ezagutuko dira eskaera izapidetzetik eratorritako gainerako jarduketak.

9. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko hamabost (15) egun balioduneko epea izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

10. artikulua. Eskatutako dokumentazioa

Eskaerekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. Oinarri hauen xede den espazioak 2026ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 30era bitartean barne hartutako kultura programaren justifikazio memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Era berean, urteko azken hiruhilekorako proiektatutako jardueren eta programen aurreikuspena aurkeztuko da.

Dokumentuak bereziki aipatuko ditu deialdi honetan ezarritako balioespen irizpideak, eta sorkuntza gunean egindako programen, zerbitzuen eta jardueren banakapena aurkeztu beharko du, erreferentzia gisa III. eranskinean emandako ereduaren erabilera. Era berean, sistematikoki sartu beharko da sexuaren aldagaia emandako informazioan. Horrela, datuak bereizita emango dira, emakume eta gizonen partaidetza dauden aldeak ikusi ahal izateko eta, ahal den neurrian, datu horien analisia eta interpretazioa ere jaso beharko dira.

2. Sorkuntza guneak 2026ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 30era bitartean benetan egindako gastu guztien zerrenda sailkatua. Gastu kontzeptu bakoitzak, gutxienez, datu hauek jaso beharko ditu: hartzekodunaren identifikazioa, gastu agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Zerrenda hori deialdi honen IV. eranskinean emandako ereduaren arabera izango da, eta, ahal dela, Excel formatuan edo baliokidean erantsiko da.

Ezinbestekoa izango da eskabideari erantzea memoria eta gastuen zerrenda, oinarri hauek ezarritako epean eta moduan. Eskabidea memoriarekin eta gastuen zerrendarekin batera aurkezten ez bada, eskabidea ez da izapidetzeko onartuko.

Nolanahi ere, ukatu egingo dira diruz lagundu daitekeen gutxienezko 20.000,00 euroko gastua aurkezten ez duten eskabideak.

Jatorrizko fakturak edo dokumentu baliokideak aurkeztu beharko dira soilik baldin eta bakarra edo batera, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 2.000,00 eurotik gorakoak badira (BEZa aparte). Era berean, gastu horien ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

7.1.c) artikuluan jasotzen den bezala, ez da beharrezkoa izango zeharkako gastuak edo gastu orokorrak justifikatzea.

3. Diruz lagundutako sorkuntza gunea finantzatu duten bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4. Aurkeztu beharreko administrazio-agiriak:

— Hala badagokio, BEZa ordaintzetik salbuetsita egotearen ziurtagiria, dagozkion zerga administrazioak emana.

— Deialdi honen 6.2.a) artikuluan aurreikusitako egiaztagiriak.

Eskaeran edo horrekin batera aurkezten diren administrazio agirietan akatsik egongo balitz edo osorik bete gabe egongo balira, hamar egun balioduneko epea emango zaie entitate interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz. Kultura Ekintza Zerbitzuak egokitzen jotzen duen behar beste agiri eskatu ahal izango dizkie entitate eskatzaileei aurkeztutako eskaera behar bezala balioetsi eta ebazteko.

11. artikulua. Balioespen irizpideak

Aurkeztutako proiektuak balioesteko, honako irizpide eta baremo hauek hartuko dira kontuan (100 puntu):

1. Sorkuntza gunearen eta barne hartzen dituen proiektuen kalitatea. Gehienez 40 puntu. Honako hauek hartuko dira kontuan:

a. Sorkuntza gunearen azpiegiturak, baliabide teknikoak, giza baliabideak, baliabide materialak eta espazioak eskaintzen dituen zerbitzuak. Gehienez 10 puntu.

b. Sorkuntza guneak sorkuntza proiektuen kalitatea. Gehienez 10 puntu.

c. Sorkuntza gunearen diziplina anitzeko izaera. Diziplinarteko proiektuak. Ostatatutako proiektuen arteko bat egitea. Gehienez 7 puntu.

d. Sorkuntza gunearen ibilbidea. Proiektuaren jarraitutasuna denboran. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

IBILBIDE URTEAK	HAZTAPENA
10 urte baino gehiago	5 puntu
7 urtetik 10 urtera bitartean	4 puntu
4 urtetik 7 urtera bitartean	3 puntu
3 urte	2 puntu
2 urte	1 puntu

e. Gunearen berezitasuna: Arabako ekosistema kulturalari egindako ekarpen berezia, kontuan hartuta diziplinak, metodologiak eta/edo publikoak. Gehienez 8 puntu.

2. Gunearen interes publikoa. Gehienez 25 puntu. Honako hauek hartuko dira kontuan:

a. Gunearen inguru hurbilarekiko uztardura. Ezarritako tokiko lankidetzak sareak. Proiektuaren itzulkin soziala: kohesio soziala, formazioa, enplegua, ingurune fisikoan duen inpaktua, parte hartzea. Gehienez 10 puntu.

b. Sorkuntza guneak estatututako proiektuak hautatzeko sistema. Onuradunen aniztasuna. Zenbat eta deialdi zabalagoa egin eta zenbat eta eragile gehiago izan, orduan eta puntuazio handiagoa. Gehienez 5 puntu

c. Sorkuntza emergenteari laguntzeko programa espezifikoak. Gunean hartutako 30 urtetik beherako sortzaileen proiektuak eta jarduerak. Gehienez 5 puntu.

d. Publikoak sortzeko estrategiak. Gehienez 5 puntu.

3. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa. Gehienez 15 puntu. Honako hauek hartuko dira kontuan:

a. Proiektuaren oinarria. Lortu nahi diren helburuen deskribapen argia eta gauzatutako programa eta jardueretikiko koherentzia. Gehienez 5 puntu.

b. Jarraipena eta ebaluazioa egiteko erabilitako metodologiak eta proposatutako adierazleen deskribapena. Gehienez 5 puntu.

c. Sorkuntza gunea eta garatzen dituen programak komunikatzeko eta zabaltzeko tresnak eta bitartekoak. Gehienez 5 puntu.

4. Euskara erabiltzea programaren garapenean Gehienez 5 puntu, honela banatuta:
- a. Erabiltzaileei euskaraz eskainitako zerbitzuak. Gehienez 3 puntu.
 - b. Euskararen erabilera sorkuntza guneko proiektuen garapenean (lan hizkuntza; proiektuen hizkuntza, hala badagokio). Gehienez 2 puntu.
5. Ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:
- a. Sortzaileen artean genero desberdintasunak ezabatzeko programa espezifikoak sartzea. Gehienez 3 puntu.
 - b. Sorkuntza guneko sorkuntza proiektuen parekotasuna. Gehienez 2 puntu.
6. Programan tolerantzia, gizarte inklusioa eta kultura aniztasuna sustatzen dituzten helburuak eta ekintzak sartzea. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:
- a. Kulturaguneko irisgarritasun irizpideak. Sartzeko oztopo fisikoak, sentsorialak, digitalak eta kognitiboak ezabatzeko neurriak. Gehienez 3 puntu.
 - b. Tolerantziari, gizarte inklusioari eta kultura aniztasunari balioa ematen dieten mezuak zabaltzen dituzten ostatatutako proiektuak eta garatutako programak. Gehienez 2 puntu.
7. Ingurumen irizpideak. Gehienez 5 puntu.
- a. Jasangarritasun irizpideak sartzea kulturagunearen estrategia globalean. Kulturagunea eta haren funtzionamendua alderdi nagusietara egokitzea, hala nola jasangarritasunera, kultura zaintzara eta ingurumen hezkuntzara. Gehienez 3 puntu.
 - b. Proiektuaren ingurumen inpaktua murrizteko egindako ekintza espezifikoak. Gehienez 2 puntu.
- Dirulaguntza emateko proposamenean, gutxienez 60 puntuko balioespena lortzen duten eskaerak bakarrik sartuko dira. Gainerako eskabideak baztertu egingo dira.
- Hala ere, eskaera guztiak baloratu ondoren, eta Arabako Lurralde Historikoko sorkuntza guneen sarean lurralde oreka handiagoa sustatze aldera, honako faktore zuzentzaile hau aplikatuko zaie emakida proposamenean jasotako eskaera guztiei, sozietatearen egoitzaren kokapenaren arabera:

ENTITATEAREN EGOITZA	FAKTORE ZUZENTZAILEA
Sozietatearen egoitza Gasteiz ez den beste udalerrri batean izatea	1,15
Sozietatearen egoitza Gasteizen izatea	1

Proiektuaren azken balorazioa lortutako guztizko puntuazioa dagokion faktore zuzentzailearekin biderkatzearen emaitza izango da.

Onuradun izan daitezkeen entitateen azken lehentasuna ezarri ondoren, balorazio handiena lortu dutenei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontuko zuzkiduraren zenbatekoa gaingindu gabe.

Soberako aurrekontu kreditua ez bada nahikoa azken entitate onuradunari proposatutako zenbatekoari erantzuteko, gainerako kredituaren zenbateko bera emango zaio.

Bi eskaerek edo gehiagok lortutako azken puntuazioan berdinketa gertatuz gero, 1. irizpidean («Sorkuntza gunearen eta barne hartzen dituen proiektuen kalitatea») puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, 2. irizpidean («Gunearen interes publikoa») eta 3. irizpidean («Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa») lortutako puntuaziorik handiena lortu duenak izango du lehentasuna.

12. artikulua. Organo eskuduna eta ebazpena

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde hori eratzeko, kontuan hartuko da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10. artikulua. Honako hauek osatuko dute batzordea:

- Batzordeburua: Kultura zuzendaria edo berak eskuordetutako pertsona.
- Batzordekideak: Kultura Ekintza Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona eta Kultura Zuzendaritzako bi teknikari.
- Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua, hizpidea izango duena baina botorik ez, edo hark eskuordetutako pertsona.

3. Balioespen batzordeak, dirulaguntza emateko edo ukatzeko proposamenekin batera, txosten bat egingo du, non jasoko baita onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien zerrenda ordenatua.

4. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko entitate onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5. Organo eskudunak, balioespen batzordeak proposatuta, kasuan kasuko ebazpena emango du gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, eskaera ezetsi egin dela ulertuko dute entitate interesdunek.

6. Esleipen ebazpenean zer entitate eskatzaileri eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Baldintza guztiak beteta, esleitutako kreditua agortu delako dirulaguntzarik lortzen ez duten eskaerak ere jasoko dira. Eskaera horiekin itxaron zerrenda bat egingo da, uko egiterik izanez gero erabiliko dena, balioespen irizpideak aplikatzearen ondoriozko lehentasun hurrenkera begiratzuz.

7. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie entitate eskatzaileei banan-banan, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan arautzen duenarekin.

13. artikulua. Eskaerak birformulatzea

Dirulaguntzaren xedea eskatzaileak egin beharreko jarduerak finantzatzea denean, ebazpen proposameneko dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskaeran ageri den zenbatekoa baino txikiagoa bada, pertsona onuradunari bere eskaera birformulatze eskatu ahal izango zaio, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzari egokitzeko.

